



- Plater bat zopa jan dut.
- Platerkada bat zopa jan dut.
- Plater bete zopa jan dut.



Plater bat zopa

Edukiaz (zopaz) ari gara, eta edukieraz:

- Zenbat zopa?
- Plater bete.

*** Zopa-plater bat jan dut.**



- **Garagardo-lata bat** bota dut lurrera.

Zer bota dut?

- Ontziaz ari naiz.



- **Lata bat garagardo** edan dut.

Zenbat garagardo edan dut?

- Edukieraz ari naiz.



EHULKUren aholkuak

Neurri-sintagmak: plater bat zopa



• **Bi zaku patata** erosi ditut.

Zenbat patata erosi dut?



- **Hiru zabor-zaku** erosi nituen obra-hondakinak kentzeko, baina **bi zaku hondakin** baino ez nituen eraman behar izan garbigunera.



Zenbat zaku erosi nituen?
Zenbat hondakin eraman behar izan nuen?



- **Gurdi(kada) bat lasto** eraman dut kortara.
- **Gurdi bete lasto** eraman dut kortara.



Zenbat lasto eraman dut?



- **Bi orga bete liburu** eraman ditut etxera.





Zerbait neurtzeko ontzi bat erabiltzen denean, neurria adierazteko, lehenik kantitatea jartzen da (ontziaren izena + determinatzailea), eta bigarrenik edukia.

- **Bi autobus(kada) japoniar turista** heldu dira Donostiara.
 - **Zenbat** japoniar turista heldu dira?
- **Pakete bat patata frijitu** jan dut.
 - **Zenbat** patata frijitu jan ditut?
- **Zaku(kada) bat babarrun, bi botila ur eta hiru lata freskagarri** erosi ditugu.
 - **Zenbat** babarrun, ur eta freskagarri erosi ditugu?



NOLA JOKATU NEURRI-SINTAGMAK



- Eskutada bat dolarren truke.

Kasuan kasu, mugagabeen edo mugatuen deklinatzen da.

- Lau botila ardok 200 € balio dute.
- Lau botila ardo horiek 200 € kostatzen dira.
- Lau botila ardoak edan zituen.

